TOLOSAKO UDALA

## Adierazpen instituzionala

## 2022ko martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, orain arte lortutakoa ospatzeko eta etorkizuneko erronkak aurkezteko eguna izateaz gain, Mugimendu Feministari, emakume-taldeei eta honaino iristeko borrokatu den jendeari aitortza egiteko eguna ere bada. Lan horrek guztiak, zalantzarik gabe, emakumeen bizitzako hainbat arlotan aurrerapen handiak lortzen lagundu du, eta aurrerapen horiek ezinezkoak izango ziren Mugimendu Feministaren eta emakume-elkarteen ekarpenik gabe. Beren eragin-eremutik abiatuta, indarrak batu dituzte eta estrategiak partekatu, helburu berari begira: emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea. Ildo horretatik, adierazpen hau aurkezten dugu, dagokion erantzukizuna Udal honek bere gain hartuta.

Esparru horretan, Eusko Legebiltzarrean Berdintasunerako 4/2005 Legearen Aldaketa onartzeari balioa eman behar zaio, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka jauzi kualitatiboa egitea ahalbidetuko duen arau-esparrua eraikitzeko testuinguru egokian sustraituta baitago. Badakigu gaur egun gure herri eta hirietan berdintasunarekin gero eta sentsibilizazio handiagoa duten herritarrak ditugula, eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako gero eta neurri gehiago eskatzen dituztela. Horregatik, berdintasunerako legearen aldaketak dakartzan arau-esparru berriak tresna izan behar du gizartearen aldarri horri eta erakundeek herritarren aurrean duten konpromisoari erantzuteko.

Toki entitateek konpromisoa hartu dute berdintasuna lortzeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzeko, baina beharrezkoa da aurrera egiten jarraitzea eta udalei, batez ere txikienei, erronka horiei aurre egiteko tresnak ematea, besteak beste, honako gai hauetan sakonduz: berdintasunaren

## Declaración Institucional

## 8 de marzo de 2022, Día Internacional de las Mujeres

El 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, además de ser un día para celebrar lo conseguido hasta ahora y presentar los retos de futuro, es un día para reconocer al Movimiento Feminista, a los grupos de mujeres y a las personas que han luchado para llegar hasta aquí. Todo este trabajo ha contribuido, sin duda, a lograr grandes avances en diferentes ámbitos de la vida de las mujeres, que no hubieran sido posibles sin la aportación del Movimiento Feminista, de las asociaciones de mujeres. Se ha partido de su propio ámbito de influencia, aunando fuerzas y compartiendo estrategias que han buscado el mismo objetivo: conseguir la igualdad de mujeres y hombres. En este sentido, presentamos esta declaración desde la asunción de la responsabilidad que corresponde a este Ayuntammiento.

En este marco, es necesario poner en valor la aprobación en el Parlamento Vasco de la Modificación de la Ley vasca 4/2005 para la Igualdad, enraizada en el contexto idóneo para construir el marco normativo que posibilite dar un salto cualitativo en favor de la igualdad y contra la violencia machista. Somos conscientes de que en nuestros pueblos y ciudades contamos hoy en día con una ciudadanía cada vez más sensibilizada con la igualdad, cada vez más demandante de medidas en contra de la violencia hacia las mujeres. Por ello, el nuevo marco normativo que supone la modificación de la ley de igualdad debe ser un instrumento para dar respuesta a este clamor social y al compromiso de las instituciones ante la ciudadanía.

Las entidades locales se comprometen a lograr la igualdad y a construir una sociedad libre de violencia contra las mujeres, pero es necesario seguir avanzando y dotar a los municipios, especialmente a los más pequeños, de herramientas para hacer frente a estos retos, profundizando, entre otros, en la

transbertsalitatea politika publiko guztietan; emakumeen ahalduntzea; gizonen inplikazioa berdintasunean; pobreziaren feminizazioa gutxitzea; emakumeen sexu-askatasunaren alde jardutea; hezkuntzan sakontzea, hezkuntza baita tresnarik eraginkorrena balioak aldatzeko, emakumeentzako bizitza askea eraikitzeko eremu guztietan; eta zaintza-lanak ikusarazi, baloratu eta partekatuko dituen gizartearen eraikuntzan sakontzea.

transversalización de la igualdad en todas las políticas públicas; en el empoderamiento de las mujeres; en la implicación de los hombres en la igualdad; en la disminución de la feminización de la pobreza; en favor de la libertad sexual de las mujeres; y en la educación como el instrumento más efectivo para el cambio de valores en la construcción de una vida libre para las mujeres en todos ámbitos; y en la construcción de una sociedad que visibilice, valore y comparta los trabajos de cuidado

Azken honi lotuta, eta askotan esan dugun bezala, pandemiak agerian utzi du feminismoa aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaurgarria eta dependentea dela. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eustearen aldeko apustua egiteko unea da, eta horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Izan ere, genero-desberdintasun estrukturalen gorakada errealitate ukaezina da: emakumeek beren gain hartzen jarraitzen dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea, gainera, modu prekarioan.

En relación con este último, y como hemos dicho muchas veces, la pandemia ha puesto de manifiesto lo que el feminismo venía reivindicando hace tiempo: que la vida es vulnerable y dependiente. Es el momento de apostar por mantener la vida en condiciones dignas y justas, lo que requiere una mirada feminista en todas las políticas que impulsamos desde las instituciones. De hecho, el aumento de las desigualdades estructurales de género es una realidad innegable: las mujeres siguen asumiendo la mayor parte de la carga de cuidados, remunerada y no remunerada, además, de forma precaria.

Horretarako, erakundeak koordinatu egin behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere, emakume-taldeek eta Mugimendu Feministak. Behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori premisa feministetatik egin behar da.

Para ello hay que coordinar las instituciones y abrir cauces para que la ciudadanía participe real y eficazmente en las decisiones públicas, especialmente el Movimiento Feminista y los diversos grupos de mujeres. Tenemos que afrontar adecuadamente la gran responsabilidad pública que tenemos y eso hay que hacerlo desde premisas feministas.

Horregatik guztiagatik, Tolosako Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

Por todo ello, el Ayuntamiento de Tolosa adquiere los siguientes compromisos:

1.- Indartzea baliabide ekonomiko, pertsonal eta teknikoak, eskualdeko udalekin batera, Tolosaldeko Emakumeen Etxeak behar dituen baliabide eta zerbitzuak abian jartzeko.

1.- Reforzar los recursos económicos, personales y técnicos, junto a los ayuntamientos de la comarca, para la puesta en marcha de los recursos y servicios necesarios de la Casa de las Mujeres de Tolosaldea

2.- Jarraitzea genero-ikuspegiaren eta giza eskubideen integrazioa sendotzen, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko esku-hartze publiko guztiaren inspirazio

2.- Continuar reforzando la integración de la perspectiva de género y derechos humanos, como enfoque inspirador de toda la intervención pública en materia de igualdad de

gisa, bai eta Udaleko arloen arteko koordinazioan ere, genero-ikuspegia izango duten udal aurrekontuen definizioan eta plangintzan oinarriak jartzen aurrera egiteko.

mujeres y hombres, así como en la coordinación entre las distintas áreas del Ayuntamiento, entre otros, para avanzar en poner las bases en la definición y planificación de los presupuestos municipales con perspectiva de género.

3.- Jarraitzea administrazioko langileen prestakuntzarekin indarkeriaren kontrako protokoloaren inguruan, prestakuntza hori berdintasuna ardatz duten gainerako barne-prestakuntzekin uztartzea, eta progresiboki planifikatzea oinarrizko, derrigorrezko eta etengabeko prestakuntza-plana.

3.- Continuar con la formación que se está llevando a cabo en torno al protocolo contra la violencia dirigido al personal de la administración y compaginarlo con el resto de las formaciones internas centradas en la igualdad, planificando progresivamente el plan de formación básica, obligatoria y continua.

4.- Zabaltzea arreta emateko sistema emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien biktimei, gure eskumenen esparruan, detekzio goiztiarreko sistemen hobekuntzan aurrerapenak egitea, eta neurri guztien erdigunean jartzea biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea eta biktimen erreparazio-eskubidearen aitortza.

4.- Ampliar el sistema de atención a las víctimas de todo tipo de violencia machista contra las mujeres, en el ámbito de nuestras competencias, avanzando en la mejora de los sistemas de detección precoz, situando en el centro de todas las medidas los derechos de las víctimas y su empoderamiento, así como el reconocimiento del derecho a la reparación de las víctimas.

5.- Aurrera egitea ikuspegi intersekzionalaren integrazioan, estrategia gisa erabiltzeko generoa beste diskriminazio-ardatz batzuekin batera (adina, klase soziala, jatorria, eta abar) gainjarrita geratzen den modu partikular guztiei erantzuteko, eta hala, emakumeen artean funtsezko esperientzia desberdinak sortzeko, parte-hartze demokratiko, global eta askotarikoa berma dadin.

5.- Avanzar en la integración del enfoque interseccional, como estrategia que permita dar respuesta a todas las formas particulares en las que el género se solapa con otros ejes de discriminación (edad, clase social, origen, etc.), generando experiencias fundamentales diferentes entre las mujeres para garantizar una participación democrática, global y diversa.

6.- Sakontzea herritarren sentsibilizazioan, eta kanpaina eta programa instituzionalak bermatzea gizartea kontzientziatzeko eta emakumeak ahalduntzeko, eta bereziki gizonak eta haurrak ahalduntzeko.

6.- Profundizar en la sensibilización de la ciudadanía, garantizando la existencia de campañas y programas institucionales para concienciar a la sociedad y empoderar a las mujeres, especialmente a los hombres y a la infancia.

7.- Jarraitzea neurrien garapen integralarekin, berdintasunaren alde eta emakumeak, nerabeak eta neskatoak modu indibidualean eta kolektiboan ahalduntzeko, Gazteria Zerbitzuarekin koordinatuta, parte-hartzea bultzatuz eta haiek mugimendu feministari egindako ekarpenak gehituz. Horretarako, Jabetze Eskolak beharrezko baliabideak

7.- Continuar con el desarrollo integral de medidas a favor de la igualdad y para el empoderamiento individual y colectivo de mujeres, adolescentes y niñas, en coordinación con el Servicio de Juventud, impulsando la participación e incorporando de sus aportaciones al movimiento feminista. Para ello se garantizará que la Escuela de

izango dituela bermatuko da.

Empoderamiento disponga de los recursos necesarios.

8.- Hobetzea eta aldian-aldian eguneratzea erakundeen akordioak eta koordinazio-sistemak, hala nola, martxan den indarkeriaren aurkako II. Protokoloa. Bestalde, protokoloaren definizioan kontuan izatea indarkeria mota ezberdinak.

8.- Mejorar y actualizar periódicamente los acuerdos institucionales y los sistemas de coordinación, como el II Protocolo contra la violencia puesta en marcha. Tener en cuenta en la definición del protocolo los diferentes tipos de violencia.

9.- Zaintza mahai bat eratzeko prozesua abian jartzea. Mahai hau zaintza sistemari buruzko analisia egin eta honen konpromiso kolektiboari heltzeko estrategia publiko-komunitarioak diseinatzeko eta abian jartzeko elkarrizketarako erabakigune bat izango da, erpin guztiak ukituko dituena: itzalpean dauden etxeko langileen egoera erregulatzetik hasi eta erregulatutako zerbitzu sistemaren inguruko hausnarketa egiteraino. Eta arreta berezia jarri beharko du parte hartzeko zailtasun handienak dituzten emakumeen kolektiboen beharretan.

9.- Puesta en marcha del proceso de constitución de una Mesa sobre los Cuidados. Esta mesa será un espacio de decisión para el diálogo para el diseño y puesta en marcha de estrategias público-comunitarias que analicen el sistema de cuidados y aborden su compromiso colectivo y que afecten a todos los vértices: desde la regulación de la situación de las trabajadoras del hogar en la sombra hasta la reflexión sobre el sistema de servicios regulado. Y deberá prestar especial atención a las necesidades de los colectivos de mujeres con mayores dificultades de participación.

10.- Identifikatzea eta aztertzea gure udalerriko etxeko langileen egoera, koordinaturik Gizarte Zerbitzuekin, Migrazioarekin, Tolosaldea Garatzen garapen agentziarekin eta eremu horretan inplikatuta dauden komunitateko gizarte-eragileekin, eta ekimenak bultzatzea Informazio eta Orientazio Juridikoko Zerbitzua sustatzeko eta, horrela, lan-harremanen kontratu-formalizazioan aholkularitza bermatzeko.

10.- Identificar y analizar la situación de las empleadas de hogar en nuestro municipio, en coordinación con los Servicios Sociales, Migración, la Agencia de Desarrollo de Tolosaldea Garatzen y agentes sociales de la comunidad implicados en este ámbito, e impulsar iniciativas para promover un Servicio de Información y Orientación Jurídica para garantizar asesoramiento en la formalización contractual de las relaciones laborales.

11.- Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea, arreta berezia jarrita erantzunkidetasunean eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.

11.- Realizar campañas de comunicación que reconozcan el valor social y político de las tareas de cuidado, prestando especial atención a la corresponsabilidad y visibilizando realidades como las de las empleadas del hogar.

Tolosan, 2022ko martxoaren 7an